

5. Boletina

2012ko IRAILA

LAN OSASUN BOLETINA

AURKIBIDEA:

- 1. ZER GERTATUKO DA AMIANTOAREN BIKTIMENTZAKO KONTENTSazio FUNTSAREKIN?**
- 2. AURREKONTU MURRIZKETAK GIZARTE LAGUNTZARAKO PRESTAZIOETAN ERE**
- 3. MUTUAKO LANGILEEI SOLDATA JEITSIERA %7,2AN**
- 4. SENTENTZIA INTERESGARRIA**
- 5. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO UZTAILA**

5. Boletina

2012ko iraila

1. ZER GERTATUKO DA AMIANTOAREN BIKTIMENTZAKO KONPENTSAZIO FUNTSAREKIN?

Legealdi honetan Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailak bultzatu duen ekimenik ezagunenetakoa amiantoaren biktimentzako balizko konpentsazio funtsarena izan da. Gogoratu Legebiltzarrean ponentzia bat osatu zela gai honen inguruan. Bertan, Eusko Jaurlaritzak, Osalaren bitartez, proposamen zehatz bat aurkeztu zuen. Hain zuzen ere, Pilar Collantesek bere agerraldian erregistratuta dauden kasuei aurre egiteko 32 milioi euro beharko lirartekeela esan zuen.

ELAk ere parte hartu zuen legebiltzarrean osatutako ponentzia honetan, funtsaren aldeko iritzia emanez, era kritiko batean betiere. Gure ustez, amiantoaren arazo sozial larriari eman beharreko erantzun politiko osoaren parte bat izan behar da funtsa. Zentzu honetan, Osalanez egindako proposamena motz geratzen da. Gai honetan dei egiten diogu Eusko Jaurlaritzari dagokion erantzukizuna beregan har dezan, behar diren giza baliabide eta teknikoak jarri eta era berean lan gaixotasunen inguruan egiten diren eskaera guztiak azter ditzan. Hau da, ados gaude konpentsazio funtsarekin, baina soluzio orokor baten parte gisa, eta enpresek prebentzio arloan duten erantzukizuna inolaz ere bertan behera geratu gabe.

Haatik, kezkatuta gaude EAEn hauteskundeak aurreratu diren honetan ez

dakigulako gai honekin zer gertatuko den. Jaurlaritzan sartzeko aukera daukaten alderdiek zer asmo daukate gai honen inguruan? Zer erantzukizun hartzeko prest daude? Oraingoz ez dugu ezer entzun. Egungo gobernuak Legebiltzarrean osatutako ponentzia interes mediatiko hutsagatik bultzatu duela argi geratu da, zerbait egiten ari denaren itxura emateko baina amiantoaren arazo sozial larriaren aurrean benetako neurririk hartu hartu gabe.

Hauteskundeetan aukeratuko den gobernu bide beretik badoa arduragabekeria politiko handia izango litzateke, amiantoak etorkizunean kalte handiak sortuko dituela jakina denean.

ELAk lan gaixotasunen aurrean egiazko soluzioen beharra aldarrikatzen jarraituko du. Beharrezkoa da gaixotasun hauek ikustezin izatetik begi-bistara ekartzea. Guzti horretarako lan osasun arloan aplikatzen ari diren politika publikoak goitik behera aldatzea eskatzen jarraituko dugu.

2. AURREKONTU MURRIZKETAK GIZARTE LAGUNTZARAKO PRESTAZIOETAN ERE

Lan istripu eta gaixotasun profesionalen Mutuen zerbitzuen artean gizarte laguntzarako prestazioak daude. Hauek lan istripuen edota gaixotasun profesionalen ondorioz sortutako beharrei aurre egiteko baliabiderik ez duten onuradunei zuzendutako hautazko laguntzak, zerbitzuak edo ekarpen ekonomikoak dira.

Onuradunak, lan istripua edo gaixotasun profesionala izan duten langile babestuenak eta horien kideak, beraien senitartekoei eta eskubidedunak (ezkonlaguna, aurrekoak, ondorengoak eta gainontzeko senitartekoei) edo urtebeteko bizikidetzaren dela eta senitartekoei parekatuak daudenak izan daitezke..

Prestazio Berezien Batzordea da eskaera hauek aztertu eta onartzen dituenak. Batzorde hau, mutualitatera kidegizutako enpresen eta babestutako langileen partaidetza duen organo paritarioa da eskaerak aztertu eta onartu egiten dituenak da.

Rajoy-ren gobernuak udan erabakitako murrizketek, Mutualian prestazio hauek

duten aurrekontuan eragin zuzena izan dute baita ere. Irailaren 11an, 12.000€tako defizita zegoen dagoeneko. Horrek ondorioak izango ditu data horretatik aurrera aurkezten diren eskakizunei begira, guztiak Ministeritzak aurrekontu handitze bat egitera baldintzatuta geratuko baitira. Abendu erdirarte ez da horren berririk izango.

Orainarte gertutakoa ikusita, urtez urte prestazio hauei zuzendutako aurrekontua gutxitu egin da, gizarte laguntzak arautzen dituen eskuliburua aldaketak izango ditu, onartuko diren laguntza kopurua eta zenbatekoa murriztuz. Berrito ere, murrizketak gehiago behar dutenen kontura!

3. MUTUAKO LANGILEEI SOLDATA JEITSIERA %7,2AN

Rajoyren gobernuak egindako murrizketek ez dute inor salbu uzten, ez baitago gizartean sektore edo talde sozialik horien eraginaren ondorioetik at gelditzen denik. Eta hau hasi baino ez da egin. Mutualitateetako langileak ez dira salbuespen bat. Abenduko paga extra galtzeaz gainera, aurten beren soldatak %7,2 jaitsiera ere izango du.

Mutualitateetako langileak, nahiz eta soldatapeko langileak izan eta sektore pribatuan lan egin, soldaten murrizketei dagokienez funtzionario publikoekin parekatzen dituzte, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren erakundeak direlako. Honela, funtzionarioei ezarritako murrizketa berdinak eta batenbat gehiago aplikatzen zaizkie.

2012ko ekainaren 14ko BOE-an “Administrazio Publikoan berrantolakoeta eta arrazionalizazio neurriak” argitaratu ziren. Bertan, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten lan istripu eta lan gaixotasunetarako mutualitateetako langileak sartzen dira. Gauzak honela, 2010an soldatan %5eko murrizketa izan zutenok, 2011an izozketa jasan zuten, eta aurten ere soldata izoztuarekin jarraitzen dute. Gainera, ez dute gabonetako aparteko pagarik jasoko, eta urtean aparteko 2 paga baino gehiago dutenei, urteko ordainsari osoaren guztiaren hamalauren bat jaitsiko zaie.

Guzti honengatik mutualitateetako langileek “Gobernuak eta mutuek diru-zorroa lapurtzen digute” lelopean, mobilizazio eta elkarretaratze kanpaina bat hastera doaz. Milioika euroko soberakinak dituen sektore batean murrizketak ezartzea kontraesan itzela

da. Honi guztiari mutualitateen soberakinen funtsa gehitu behar zaio, 6.000 milioi euro alegia. Diru hau ekaineko pentsioen ordainketarako erabili da.

Mutualitateetako langileei dirua lapurtzen zaio bankuei emateko. Soberan jakina da oraingo Confebaskeko zuzendaria eta Mutualiako zuzendari-gerentea pertsona bera dela. Modu egokia dena etxean gelditu dadin.

4.SENTENTZIA INTERESGARRIA

M. A.A. afiliatuak arrazoia duela erabaki du Donostiako lan arloko 3. epaitegiak, sententzia dagoeneko rimoa delarik. Urtebete sorbaldan tenditis batek jota bajaran egon ondoren, Gizarte Segurantzak langilea lan egiteko beste zegoela ulertu eta maiatzaren 31an lanera bueltatzea erabaki zuen. Nahiz eta tratamendua Gizarte Segurantzak egin, TOYS R US enpresak kontingentzi arrunta Fremap mutuaren bitartez hitzartuta dauka. Altaren aurkako errekurtsua jarrita ere, alta ez bidezkoa dela eta beste 6 hilabeteko baja luzapena eskatuz, langilea lanera bueltatzeko beharrea ikusten da, horren ondorioz bere osasuna are gehiago kaltetuz.

Epaileak argi uzten du, EAEko Auzitegiaren abenduak 1eko sentenzian oinarrituz, "lanera bueltak ez du ezer esan nahi, langileak ez baitu bestelako aukerarik", eta gainera, bere osasuna txarrera doala eta erreabilitazioa jarraitzeko beharra frogatuta dagoenean, alta ez bidezkoa da argi eta garbi.

5. LAN-ISTRIPUEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2012KO URTARRILA - IRAILA

HEH	LAN-ISTRIPUAK
BIZKAIA	13
GIPUZKOA	11
ARABA	6
NAFARROA	4
GUZTIRA	34

**Datuak irailaren 28ra*